



# **HIRIETAKO ZUHAITZEN ARRISKUAREN GESTIOA:**

**ZIENTZIA APLIKATUTIK PARTAIDETZA PUBLIKORA.**

**2016ko urriaren 21a, barikua**

**Azkuna Zentroko  
auditorioa (-1)  
Arriquirar plaza, 4. 48010  
Bilbo, Bizkaia**



**Antolatzaileak:**



# **HIRIETAKO ZUHAITZEN ARRISKUAREN GESTIOA: ZIENTZIA APLIKATUTIK PARTAIDETZA PUBLIKORA**

2014. urteaz geroztik munduko biztanleen % 54tik gora hirietan bizi da eta, ondorioz, konponbide naturalagoak bilatu beharra dago gizakiaren jarduerak gehiegi aldatutako ingurunerako. Horien barruan, gero eta garrantzi handiagoa dute azpiegitura berdeek, eraginkorra dela erakutsi duen estrategia baita eta zenbait ezaugarri dituen, hala nola, multieskalaritatea, konektibitatea eta multifuntzionaltasuna. Ondotxo dakigunez, azpiegitura berdeak zenbait osagai ditu, besteak beste zuhaitzak, hainbat onura sortzen eta lotzen dituztelako ingurumen, psikologia, estetika eta ekonomiaren arloan; horietako asko zerbitzu ekosistemikotzat hartzen dira.. Baina ez dugu ahaztu behar zuhaitzek ere euren alde negatiboa dutela, dizebitzuak deritzenak: oztopoak eragitea eraikinetan, zoladurak apurtzea, substantzia alergikoak barreiatzea, usain txarreko fruituak etab.

Argi dago alderik txarreana pertsonengan eta/edo ondasunetan kalteak eragiteko arriskua dela. Badakigu hirietako zuhaitzek, berez, arriskua dakartela.

Gutxitan, baina, zoritxarrez, ondorio tamalgarriekin eta gehiegizko burrunba dutenak komunikabideetan. Zuhaitzak kolapsatu eta kalte handiak eta heriotzak ere eragiten dituzte, Espainiako zenbait hiritan oraintsu gertatu den moduan.

Espainiako Parke eta Lorategi Publikoen Elkartearen arazoak jakitun eta herritarren kezkarri erantzuteko eta arlo honetako ezagupenak eta prestakuntza hobetzeko premia kontuan hartuta, zenbait ekimen ari da gauzatzen, jardunaldi hau, esaterako. Bertan, Europako eta Espainiako hirietako esperientziak azalduko dira, ezagupenak alderatu eta beste toki batzuetako gestio-politiken ikuspegiak zeintzuk diren jakiteko.

Parte-hartzaileak arretaz aukeratu dira jardunaldiak ikuspegi eta bilakaera dinamiko eta pragmatikoa izan dezan. Arriskuaren gestioaren arloko nazioko eta atzerriko ikuspegiak aurkeztuko dira: Arriskuaren bilakaeraren esperientzien alderik zientifikoena partaidetza sozialari azalduta, Madriliko zuhaitzekiko gorabeheren protokoloa azalduta, zuhaitzak egoteak dakarren erantzukizunaz jabetzeko.

EPLPEren ekimen berezi bat ere aurkeztuko da: zuhaitzen kolapsoari buruz Espainiako udalen eta arlo honetan lanean diharduten teknikarien artean osatu nahi duten datu-basea sortzea eta garatzea. Datu-base horri esker, hobetu egin ahal izango dira zuhaitzen arriskuaren ebaluazioa eta gestioa eta gure lurraldean ezagupenak eta esperientziak trukatzeko aukera emango du.

Jardunaldia amaitzeko solasaldi-mahaia antolatu da ikuspegi guztiak alderatzeko eta ondorio zehatz eta baliagarriak definitzen saiatzeko.

EPLPEk vivirlosparques plataformarekin sortutako Parkeen eta Lorategien Sareaz baliatuta, Facebooken "Grupo de Arbolado Ornamental" izeneko orria jarri da abian, hirietako zuhaitzen arriskuaren gestioari buruzko jardunaldi honetako gaia eztabaidatzeko eta ezagupenak modu antolatuan eta arduratsuan partekatzeko. <https://www.facebook.com/groups/ArboladoOrnamental/>. Era berean, jardunaldiaren egunean, goizean, twitterren bidez parte hartu eta hitzaldiak jarraitu ahal izango dira #gestionarboladoBilbao traolaren bidez eta EPLPEren facebookeko orrian: <https://www.facebook.com/vivirlosparques/>.

# Programa

9:15 - 10:00. Akreditazioa eta dokumentuak banatzea

## 10:00 - 10:20. Inauguración de la Jornada

**Ricardo Barkala Zumelzu jn.**, Bilboko Udaleko Obra, Zerbitzu, Hiri Eraberritze eta Espazio Publikoaren Saileko zinegotzia.

**Francisco Bergua Vizcarra jn.**, Espainiako Parke eta Lorategi Publikoen Elkarteko presidentea.

## 10:20 - 11:05. 1. hitzaldia

### Un nuevo enfoque para la evaluación de la estabilidad de arbolado.

(A new approach to Tree Stability Assessment)

#### Alessandro Pestalozza.

Dottore Agronomo. Consulente in gestione e progettazione del verde. Esperto in arboricoltura. Socio fondatore della Società Italiana di Arboricoltura ed ex vicepresidente. Già Docente a contratto in verifica della stabilità degli alberi presso la facoltà di agraria dell'Università di Pisa. Dendrotec.

Hirietako zuhaitzen egonkortasuna ebaluatzeko enfoke metodologiko berriari helduko zaio, atzerriko beste herrialde batzuetan erabilitako metodoak konbinatzean oinarritutakoa, hirietako zuhaitzen arriskuen eta gestioaren ebaluazioarekin lotutako konponbide hobea lortze aldera.

Alde bakarreko azterketa-metodoek sarritan konponbide partzialak soilik eskaintzen dituzte eta hainbat galdera utzita erantzun barik. Metodologia osagarrietan oinarritutako erabilera konbinatuek, ordea, zuhaitz guztien ebaluazio zorrotzagoa egiteko aukera ematen dute orokorrean.

Gero eta gehiago dira lehen SIA-SIM metodoa erabili arren, orain diagnostikorako tresna osagarriak erabiltzen dituzten adituak; izan ere, tresna horiek azkarragoak eta erabilerrazagoak dira zuhaitzaren enborra ebaluatzeko. Hala berean, VTA metodoa erabili ohi zuten profesional askok trakzio-testaren teknikaz baliatzen ikasi dute, sustrai-sistemaren egonkortasunari buruzko zalantzak dituztenean. Egunkortasunaren esparruan Italian egindako adibide batzuek ere azalduko dira jardunaldian; betiere, osagarritasun metodologikoaren ikuspuntutik.

## 11:05 - 11:50. 2. hitzaldia

### Gestión de riesgo, salud del árbol y participación pública. Estudio de caso: Islington (Londres).

(Risk management, tree health and public participation. Case study: Islington (London)).

#### Jake Tibbets.

Team Manager (Arboriculture). Public Realm. Greenspace and Business Service. Islington Council.

Londresko zuhaitzen gestioa aldatzen ari da presio ekonomikoak direla eta. Gutxiagorekin gehiago egiteko eskatzen diote hango Udalarari. Jake Tibbets zerbitzuak emateko konponbideak bilatzen ibili da, zuhaitzen osasuna eta eragiten duten arriskua baztertu gabe. Berriri ari dira taxutzen zuhaitzen kudeatzaileen eta publikoaren arteko harremana informazioaren bidez. Herritarrak gaitu eta prestatu nahi dira, eginkizun handiagoa uzteko euren gain eta, hartara, zuhaitzak eta arriskua gestionatzen direla ziurtatzeko. Jabetzaren sentimendua ere ematen zaio publikoari eta desblokeatu egiten da zuhaitzen kudeatzaileek duten gutxietsitako baliabiderik handiena: herritarrak.

## 11:50 - 12:15. ATSEDENALDIA/KAFEA

## 12:15 - 13:00. 3. hitzaldia

### “Protocolo de gestión de incidencias en materia de arbolado en la ciudad de Madrid”.

#### Antonio Morcillo San Juan jn.

Doktorea Mendi Ingeniaritzan. Berdeguneak Zaintzeko Zerbitzuko burua. Berdeguneak Zaintzeko Zuzendariorde Nagusia. Ura eta Berdeguneak Kudeatzeko Zuzendaritza Nagusia

Hitzaldi hau Madrileko zuhaitzekiko gorabeherari buruzkoa izango da, alderik garrantzitsuenak zehaztuta eta jarduteko estrategiak eta sistemak azalduta.

Enborra irauli edo apurtuta adarrak edo zuhaitzak jausten direnean edota jausi aurretiko egoeretan jarduteko eta informazioa batzeko metodologia finkatzea da protokoloaren helburua. Lortu nahi dena: esku-hartzea gorabeherak konpontzeko (giza baliabideak eta baliabide materialak antolatzea), tartean dauden eragileen arteko komunikazioa erraz bideratzea (udal zerbitzuak, enpresa kontratistak, herritarrak etab.) eta informazioa biltzea datu-basea egiteko, zergatiak sakon aztertze aldera.

13:00 - 13:10. **4. hitzaldia**

**Base de datos española de colapsos de árboles (BDECA). Presentación y perspectivas.**

**Pedro Calaza Martínez jn.**

Doktorea Nekazaritza Ingeniaritzan. Espainiako Parke eta Lorategi Publikoen Elkarteko Batzordearen eta Granada arauaren koordinatzailea.

Zuhaitzen akatsen tipologiei buruzko erreferentziako daturik ez dago gaur egun Espainian eta, horrek, zaildu egiten ditu diagnostikoa egiteko lanak. EPLPEk, arazoaz jakitun, erreferentziako datuok sortzeko proposamena egin du. Egin eginean ere, hitzaldi hau Espainian zuhaitzen kolapsoen gaineko datu-basea sortzeko egiten ari diren lanei buruzkoa da, horrela ezagupenak areagotzeko eta prognosi zehatzagoak eta fidagarriagoak egin ahal izateko eta espezieen araberrako arriskugarritasunaren profilak finkatzeko.

Honakoak azalduko dira: datu-basearen arkitektura, lan-prozedura, tokian tokiko datuak jasotzea barne, erabiltzailearen eskuliburua eta baterako proiektu honetan parte hartu nahi duten teknikariek eta adituen lankidetzamota.

13:10 - 13:50. **Eztabaida-Solasaldia**

**Jake Tibbets jn.**

**Alessandro Pestalozza jn.**

**Antonio Morcillo San Juan jn.**

**Moderatzailea:**

**Pedro Calaza Martínez jn.**

13:50 - 14:00. **Ondorioak irakurtzea eta amaiera**

*Aurkezlea:*

**Iñaki Gamboa Aramburu jn.**

Parkeen eta Lorategien Sekzioko burua. Bilboko Udala.

*Jardunaldi teknikoaren koordinatzaileak:*

**Pedro Calaza Martínez jn eta Iñaki Gamboa Aramburu jn.**

EPLPEko kideak.

**Antolatzaileak:**



**Bilbao**



ASOCIACIÓN ESPAÑOLA  
DE PARQUES Y  
JARDINES PÚBLICOS

# Izena emateko orria

Jardunaldi teknikoa. Bilbo, 2016ko urriaren 21a

**HIRIETAKO ZUHAITZEN ARRISKUAREN GESTIOA:**  
ZIENTZIA APLIKATUTIK PARTAIDETZA PUBLIKORA.

Izen-abizenak:

---

NAN:

---

Helbidea:

---

Herria:

---

P.K.:

Probintzia:

---

Helbide elektr.:

---

**Izena emateko kuota: doan**

Izena ematea nahitaezkoa da jardunaldira joan ahal izateko. Izena eman nahi baduzu, bete inprimakia eta bidali helbide honetara:

**Bilboko Udala**

**Bilboko Udaleko Obra, Zerbitzu, Hiri Eraberritze eta Espazio Publikoa**  
**Parkeen eta Lorategien Sekzioa**

**Iñaki Gamboa jn.**

**Ernesto Erkoreka plaza 1**

**48007 Bilbo**

**Tf.: 94 420 45 81**

**Helbide elektronikoa: [igamboa@bilbao.eus](mailto:igamboa@bilbao.eus)**

**Leku-kopuru mugatua.**

Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoarekin bat etorruta, dokumentu hau betetzean, interesdunak bertan eskatutako datuak Espainiako Parke eta Lorategi Publikoen Elkarteak erabiltzeko fitxategi informatizatu batean sartzea onartu eta horretarako baimena ematen du. Izena emateko orri hau bete duenak datu horiek ikusteko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubideaz baliu daiteke edo uko egin diezaiolke datuon tratamenduari. Horretarako, mesedez, jo Elkartearen zuzendaritzara edo erabili helbide elektronikoa hau: [secretaria@aepjp.es](mailto:secretaria@aepjp.es).